

Gaur hasiko da Lekeitioko Zinema eta Bideo Jaialdia

Herriko polikiroldegiak aterpetuko ditu filmeen maratokia eta lehiaketa

Erredakzioa/ Donostia

Bi zati izango ditu aurten Lekeition egin ohi den Euskal Zinema eta Bideo Bilerak (EZBB). Gaur arratsaldean, zinema maratokia izango da, eta bost pelikula emango dituzte; bihar, berriz, lehiaketara aurkeztu diren filmak erakutsiko dira. Orotara 25 pelikulatik gora izango dira ikusgai.

ERAKUSTOKI berria izango du aurten Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideoaren Bilerak. Garai batean herrian ziren hiru zinema aretoak ezerezean geratzean, Santi Brouard polikiroldegia hautatu behar izan dute antolatzailerik jaialdia aterpetzeko.

Gaur, arratseko 20:00etatik aurrera, zinema maratokia egingo da, eta bost pelikula emango dituzte: Neil Jordannen *Michael Collins*, John Frankenheimerren *Ronin* eta Brian de Palmaren *Ojos de serpiente* film luzeak, eta Juan Carlos Fresnadilloren *Esposados* eta J.Fesseren *El sedeleto de la trompeta* film laburrak.

Bihar, berriz, EZBB-ko lehiaketara aurkeztutako aleak eskeiniko dituzte goizeko, arratsaldeko eta iluntzeko saioetan banaturik. Guztira 20 bat pelikulek parte hartuko dute lehiaketan, arlo hauetan: sormenezkoa, argu-

mentuzkoa, dokumentala eta erreportaia. Lanok euskara hutsez dira eta, Super 8 edo VHS bideo euskarrietan eginikoak.

Filmeen emanaldiaren ostean, Ainhoa Aierbek eta Josu Lopezek antzerki ikuskizun bat eskainiko dute, eta ondoren, Arantza Lazkanok, Alberto Arizkorreta eta Xabier Unanuek osaturiko epaimahaiak erabakitako sariak emango dira.

Euskara eta zinema

EZBB 1978an sortu zen euskara eta zinema uztartzeko asmoz. Beste hizkuntzatan egindako filmak zabaltzeko xedeaz eginiko jaialdiak badiren arren, Zestoako jaialdia desagertu zenetik Lekeitiokoa da euskarazko pelikulak kaleratzeko bide bakarra.

Horrez gain, EZBBk zinemagile hasi berrien erakusto-

Lehiaketako filmak	
izenburua	egilea
Bideo profesionala	
► Sormenezkoa	
<i>Txarri</i>	Jose Ramon Txopitea
<i>Garbikunde</i>	Juanan Urkola
<i>Sokatira</i>	Juanan Urkola
<i>Haragia</i>	Begoña Vicario
► Dokumentala	
<i>Bakea ereiten</i>	Juanjo Elordi
<i>Chihuahuko Urionatarrak</i>	Agustin Goenaga
<i>Patxo</i>	Nico Gutmann
► Argumentuzkoa	
<i>Amnesia</i>	Iurgi Urrutia
<i>Gorri gorria</i>	Clara Perez Wolfram
Bideo amateurra	
► Sormenezkoa	
<i>Eserlekua</i>	Andres Elizondo
<i>Pago artean</i>	Josetxo Lijo
► Dokumentala	
<i>Gorbeiaiko karsta</i>	Miguel Angel Garcia Miguelez
<i>Begiek salatzen al naute?</i>	Juan Miguel Gutierrez Marquez
<i>Loguretuta</i>	Andres Elizondo
<i>Elosu-Plazentzia</i>	Amaia Labaien
► Argumentuzkoa	
<i>Poker</i>	Islada Bideo Tailerra
<i>Bihar berriz</i>	Islada Bideo Tailerra
<i>Panpin zaharra</i>	Pello Larrañaga
<i>Vincent (Vinsen)</i>	Iñigo Kintana
<i>Zerri hanka</i>	Iñaki Beraetxe
<i>Gogoeta beltzak</i>	Eva Aycart, Iñigo Dendategi

ki izan nahi du. Hartarako aukeratu zuten Super8 formatoa, merkea eta ikasteko aproposa zelako.



JOXE LACALLE

Asier Andueza 'El vestido' film laburra errodatzen hasi da. Asier Andueza iruindarra *El vestido* film laburra errodatzen hasi zen atzo, Iruñean. Komedia musikala da eta bizitza berria nahi duen emakume triste baten istorioa kontatzen du. Elena Irureta da protagonista nagusia; Isidoro Fernandez eta Anabel Arraiza aktoreak kide ditu, eta Golden Apple Quartet taldea.

laburrean

ANTZERKIA

■ Los Duendes taldeak Andersen-en ipuin bat emango du gaur Tolosako Txotxongilo Jaialdian

HANS CHRISTIAN ANDERSEN idazlearen *Ahatetxo itsusia* ipuinean oinarrituta, Los Duendes talde valentziarrak *El patito feo* lana osatu, eta gaur estreinatuko du Tolosako San Jose ikastetxean, arratsaldeko 17:30etan, XVII. Txotxongilo Jaialdiaren barruan. Bestalde, Taun Taun taldeak *Txio txioka* lana emango du kultur etxean, 18:00etan, eta Sobrevento Co talde brasildarrak *¿Dónde está mi hero?* izenburuko ikuskizuna aurkeztuko du Leidor antzokian, iluntzeko 20:00etan.

■ Esperanza Roy ariko da gaur eta bihar Gasteizen

ESPERANZA ROY ariko da gaur eta bihar Gasteizko Antzerki Jaialdian Aristofanesen *Asamblea de Mujeres* obra eskaintzeko. Boterea lortzeko izaten den irrika kontatzen du John Strasbergen zuzendaritza duen ikuskariak. Bestalde, Pikor Teatrok *Franki Stein* muntaia emango du bihar gaueko 20:30etatik Beñat Etxepare aretoan.

HAZPEITIA

Euskadiko
XVII.
Euskal
Antzerki
Topaketak

1999ko udaskoan
Urriaren 30etik
Abenduaren 21era

abenduak 3 ostirala, 16:00etan
Enparan Dorretxean

**IRRATI LEHIAKETAREN
FINALA**